berriak Triforio -tik

104. Zkia.
2022ko apirila

araba álava

Aterpetxeak Ukrainako errefuxiatuak hartu ditu

Gerraren ondorioz Ukrainatik alde egin behar izan duten pertsonekiko elkartasuna Katedraleko Aterpetxearen atariraino iritsi da. Martxoaren erdialdetik, inbasioa hasi eta aste gutxira, berrogeita hamar pertsona baino gehiago hartu ditu aterpetxeak, erakundeek koordinatuta Euskadiko CEARen bidez Ukrainatik etorritako pertsonei arreta emateko martxan dagoen programaren barruan.

Izan ere, Aterpetxea izan da Euskadin Ukrainako familiei aterpea emateko lehen baliabideetako bat. Hasiera batean, gehienak igarobidean zeuden, eta egun batzuk baino ez zituzten egiten aterpetxean, beste leku batzuetara joateko zain. Ondoren, azken jomuga gure hiria duten errefuxiatuak ere hartu izan dira. Hasiera-hasieratik oinarrizko baliabideak eskuratu ahal izan dituzte, osasuna edo hezkuntza, besteak beste.



Aterpean hartutako ukrainar umeetako batek egindako marrazkia.

Errefuxiatuak aterpetxea aurretik erreserbatuta zuten talde eta elkarteekin partekatzen ari dira, eta leku hori kolektibo eta bizipen ezberdinen topagune bihurtu da.

Fundazioak adierazi nahi du "Santa Maria Katedrala Fundazioko eta aterpetxeko patroiek eta pertsonek konpromiso eta inplikazio handia dutela errefuxiatuei ahal den neurrian laguntzeko, gure arteko egonaldia ahalik eta atseginena izan dadin, bizitzen ari diren oso egoera pertsonal gogorraren barruan. Gure maitasun eta elkartasun guztia haientzat da".

Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen XV. Topaketaren harrera instituzionala

Martxoaren 17an eta 18an, Gasteizen, Europa Biltzar Jauregian, egin zen Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen XV.

Topaketan parte hartu zutenei harrera egiteko ekitaldi instituzionala egin zen martxoaren 16an Santa Maria Elizpean. "Hiri Hezitzailea sendotuz" lelopean, 111 hiritako 367 pertsonak baino gehiagok hiriek hezkuntzaren arloan dituzten erronkei buruz eztabaidatu zuten.

Azpimarratzekoa da Santa Maria Katedrala Fundazioak eta Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak lankidetza-hitzarmena dutela, eta, horren bidez, urtero lehen hezkuntzako 5.000 ikaslek baino gehiagok bisitatzen dutela katedrala.



HITZLINKIN

Fundazioa, **2022ko Korrikarekin**

Euskara sustatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren barruan, Santa Maria Katedrala Fundazioak lankidetza hitzarmena sinatu du aurten lasterketaren antolakuntzarekin, eta 12 sarrera bikoitz eta "Izpi soa" liburuaren bost ale banatuko ditu ekimenaren laguntzaileen artean. Gainera, Katedraleko Aterpetxea korrikalarien igarotzearen lekuko izan zen, apirilaren 1ean, ostiralean, Gasteizko kaleetan zehar egindako bigarren etapan.

Adriano VI.ari buruzko hitzaldi zikloa hasiko da

Apirilaren 20an, 19:30ean, Europa Jauregian, Santa Maria Katedrala Fundazioak, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak, Gasteizko Teologia Fakultateak, Arabako hiriburuko Udalak eta Vital Fundazioak Adriano VI.a Aita Santuaren izendapenaren 500 urteak ospatzeko antolatu duten zikloaren lehen hitzaldia egingo da.

"Adriano VI.a eta bere garaiko Gasteizko gizartea" hitzaldia, Andoni Artola UPV/EHUko Historia Modernoko irakasle eta Gizartea, Boterea eta Kultura (XVI-XVIII. mendeak) ikerketa-taldeko kideak emango du. Urte osoan zehar luzatuko den hitzaldi-zikloaren hasiera ez ezik, aita santu horren inguruan prestatutako jarduera-programaren hasiera ere markatuko du.

Horrela, guztira 6 hitzaldi antolatuko dira XVI. mende hasierako Gasteizko pertsonen eta gizartearen historian sakontzeko, garrantzi historiko handiko une hori erreferentziatzat hartuta. Sarrera librea eta doakoa izango da edukiera bete arte.

Era berean, Arte Sakroaren Museoan ibilbide autogidatu bat sortu da, "Adriano VI.a eta bere garaia" izenekoa, eta ekainean dibulgazio-bisitak antolatuko dira Gasteizen, Adriano VI.arekin erlazioa izan zuten lekuak eta leinuak ezagutzeko.





Aste Santuaren hasiera Gasteizen

Apirilaren 1ean, ostirala, Santa Maria Katedralak aurtengo ospakizunei hasiera ofiziala eman zien Aste Santuko Pregoiaren irakurketa hartu zuen. Jose Domingo Gómez Katedraleko Kabildoko deanak egin zuen irakurketa, Eltziegoko Santa Cecilia Musika Elkarteak lagunduta.

Aste Santuko ospakizun liturgikoak

Ostegun Santua eta Ostiral Santua:
- Meza 19:30ean.

Larunbat Santua:
- Pazko bijilia 19:30ean.

Pazko igandea:
- Meza 12:00etan.